

**EPEaren inguruan Osakidetzak Oviedoko  
Unibertsitateari enkargaturiko txosten  
psikometrikoaren azterketa**

2018ko urria



[www.lab.eus](http://www.lab.eus)



## Sar hitza

**Psikometriak** zeozer (aldagai bat edo jokaera psikologikoa) neurtzeko erabiltzen diren test edota probak egokiak, baliagarriak eta fidagarriak diren ala ez argitzen du.

Hau da, Legebiltzarrean egileak berak argitu zuen bezala, Oviedoko ikerketa psikometrikoak ez du xede bezala filtraziorik egon diren ala ez argitzea, baizik eta proba jakin bat oposiziogileen gaitasuna ebaluatzeko egokia den ala ez.

LABek benetako ikerketa estatistikoa hutsa exijitzen du, azterketaz azterketa eta oposiziogileez oposiziogile desbideratze binomialak kontuan hartuko dituen, horrela azterketen arteko kointzidentziak jakingo ditugu, honek "aukeratuen" taldea isolatzeko bidea eta filtrazioen onuradunak zein lan-zentrotan kokatzeko informazioa emango digulakoan.

Oviedoko ikerketa, nahiz eta filtraziorik egon diren ala ez zuzenduta ez egon, ageriko kasuetan ezohiko egoerak bai detektatzen dituela.

**Ezohiko egoera hauek, bat egiten dute LAB sindikatuak bere ikerketa estatistikoan zalantzen jarri zituen kategoriekin.**

Oviedoko txosteneko datuek orain arte egin diren txosten estatistikoek kontra ez dute egiten; are gehiago, elkarren osagarriak izan daitezkeela esan genezake.

## Txostenaren datuen analisisia

Azterketen kalitateari dagokionez, hau da, probak egokiak diren ala ez, esan dezakegu mediku espezialisten EPEa oso kalitate txarrekoa dela, honako datuetan oinarritzen bagara:

- 1- "Items diskriminazioa" atalean, **azterketen %86,76a maila baxuan edo oso baxuan agertzen da;**
- 2- "Izangaien trebetasunak neurtzeko baloratzeko" atalean, **azterketen %61,7an fidagarritasun baxua edo oso baxua dela agertzen da.**

Oviedoko azterketak ematen dituen emaitzen banaketari buruzko datuak kontuan hartzen baditugu, honako hiru ondorio garbi ateratzen ditugu:

- 1- "Puntuazioen banaketa" atalean, ikerketak dio 0,01 indizea gutxienekoa dela. Izan ere, **30 kategoriari dagozkion 36 azterketetan ez dira indize hori lortzen, nahiz eta kategoria batzuetan emaitzak ez diren asko urruntzen.** Beraz, Oviedo txostenak ez ditu anestesisten, neurozirujauen edo epaimahaikoen salaketa publikoak zalantzan jartzen, ezta LABek auzitan ipini dituen 19 kategorietako emaitzak.
- 2- "Zentroen arabeko puntuazioen banaketa" atalean **zentro batzuetan besteetan baino nota askoz altuagoak egotea normala ez den egoera da, soilik mediku espezialisten azterketetan gertatzen dena. Gainontzeko kategoria guztietan, zentroen arabeko notak modu normalean banatzen dira.** Datu oso esanguratsua da, agian ikerketa osoan daturik azpimagarriena; azken finean 17 kategoriatan filtrazioen balizko onuradunak lokalizatzen ari direlako zentro zehatz batzuetan.

Gainera, 4 kategoriatan zentroen arabeko datu ezohikoak lehenengo azterketan agertu dira (azterketa hauetako bakoitza HAEEek kontraturiko pertsona bakarrak egin du) eta **bat datoz Egaña Doktoarearen idazkiak seinatzen zuenarekin (Basurto Ospitalea Angiologia kategorian) zein Neurokirurgia eta Anestesiako izangaien salaketekin.**

- 3- "Lehenengo eta bigarren proben arteko korrelazioa" atalean, ikerketak seinatzen du **20 kategoriatan korrelazio ezohikoak direla, hau da, HAEEek egindako lehenengo azterketaren emaitzak eta bigarren azterketarenak ez datozela bat,** badaudelako izangaiak lehenengoan nota baxuak eta bigarren azterketan (epaimahaiek osatutakoak), aldiz, deigarriak diren oso nota altuak dauzkatenak.

Mahai gainean dauden datu guztiak aztertzen baditugu (Oviedoko txosten psikometrikoa; izangaien, sindikatu eta epaimahaietako kide batzuen salaketak; epaimahaietako aktak; eta Osakidetzak hasieratik erabili duen gardentasun eza, adibidez, zenbait emaitza bere webgunetik ezabatuz) ondorio garbia da: Osakidetzak ez du ikerketa seriorik egin. Izan ere, filtrazioak deskubritzeko egokia ez den ikerketa psikometrikoa enkargatzeak ere argi uzten du euren asmoa ez zela benetan gertatu dena argitzea, egoera "normalizatzea" baizik. Honetan ere ez dira oso trebeak izan, Oviedoko ikerketak ez-ohiko datu asko agerian utzi dituelako.

**Gure ustez, mediku espezialisten kategoria guztien azterketa guztiak aztertu behar dira, kontuan hartuta zentro bakoitzeko izangaien erantzunak noraino diren parekoak. Honela frogatuko genuke filtraziorik egon den eta non gertatu diren filtrazio horiek.**